

OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGARAKO LAGUNTZA PROGRAMAREN GIDA 651 EREDUA -DOHAINTZAK



Laguntza programa honako esteka honetan jaitsi dezakezu: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/oinordetzen-eta-dohaintzen-laguntza-programa>

AURKIBIDEA

<u>AUTOLIKIDAZIOAK AURKEZTEKO BETEBEHARRA</u>	3
<u>PROGRAMAREN INPRIMAKIEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK</u> <u>3NOLA AURKEZTU AUTOLIKIDAZIOAK LAGUNTZA PROGRAMAREN BIDEZ</u>	4
<u>AURKEZTEKO EPEA</u> <u>4ARAUDIA</u>	4
<u>JARRAITU BEHARREKO PAUSOEN LABURPENA</u>	4
<u>AURKEZLEAREN DATUAK</u>	5
<u>AURKEZPEN DATUAK</u>	6
<u>NOLA BETE EREDUA</u>	7
<u>DOHAINTZA EMAILEAREN DATUAK</u> <u>8HARTZAILEAREN DATUAK</u>	8
<u>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN KOKATUTAKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA</u>	9
<u>ONDASUN HIGIGARRIEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA</u>	12
<u>AUTOLIKIDAZIOA</u>	13
<u>NOLA ITXI AURKEZPENA ETA INPRIMATU EREDUAK</u>	15
<u>KATASTRORAKO ZERRENDA</u>	16

AUTOLIKIDAZIOAK AURKEZTEKO BETEBEHARRA

Subjektu pasiboa (zerga ordaindu behar duen pertsona) **hartzailea** da (dohaintza jasotzen duena)

Kasu hauetan aurkeztu behar da autolikidazioa Araban:

- Higiezinaren eta haien gaineko eskubideen dohaintza: higiezinak Arabako Lurralde Historikoan badaude, emailearen eta hartzailearen bizilekua zein den gorabehera.
- Beste ondasun eta eskubide batzuen dohaintza (ibilgailuak, eskudirua, enpresen partaidetzak...):
 - o hartzailearen ohiko etxebizitza Arabako Lurralde Historikoan badago zerga sortzen den unean (dohaintza egiten den unean).
 - Hala eta guztiz ere, sortzapenaren aurreko bost urteetan emalea egun kopuru handiagoa egon bada EAetik kanpo EAEn baino, jatorrizko autonomia erkidegoko araudia aplikatuko da.
 - o emailearen bizilekua atzerrian badago eta ondasunak eta eskubideak Arabako Lurralde Historikoan badaude.
- Higiezinaren eta haien gaineko eskubideen dohaintza, atzerrian badaude: hartzailearen ohiko etxebizitza Araban badago sortzapenaren unean.

PROGRAMAREN INPRIMAKIEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK	
Jatorrizkoa eta fotokopia	
EZINBESTEKOAK	SOILIK HALA BADAGOKIO
<ul style="list-style-type: none">o Dohaintzaren agiriao Dohaintza jasoko duen pertsonaren azken bost urteetako errolda ziurtagiria (salbu eta Gasteiz, Laudio edo Amurrio)o Emailearen eta hartzailearen arteko ahaidetasunaren frogagiriao Esku hartzaile guztien NANaren fotokopia	<ul style="list-style-type: none">o Hartzailearen desgaitasunaren ziurtagiriao Ohiko etxebizitzaren murrizketa aplikatu nahi izanez gero, hartzailea azken bi urteetan emailearekin bizi izan dela frogatzen duen ziurtagiriao Nekazaritzako irabazien ziurtagiriak
Ondasun higiezinak <ul style="list-style-type: none">o Katastro erreferentzien ziurtagiria	
Ondasun higigarriak eta eskubideak <ul style="list-style-type: none">o Eskudirua: banku transferentziaren edo txekearen kopiao Ibilgailuaren agiriak (azterketa teknikoaren txartela eta zirkulazio baimena)o Panteoiaren edo nitxoaren tituluao Akzioen, partaidetzen eta inbertsio funtsen ziurtagiriao Burtsan kotizatzen ez duten akzioak: onartutako azken balantzearen kopia eta kapital soziala zenbat partaidetzatan edo akziotan banatuta dagoen jasotzen duen ziurtagiriao Bonoen, zor publikoaren, obligazioen eta gainerako balioen ziurtagiriao Kengarriak diren kargen, zorren eta gastuen ziurtagiria	
Ziurtagiriek eta balioek dohaintza egunekoak izan behar dute beti	

NOLA AURKEZTU AUTOLIKIDAZIOAK LAGUNTZA PROGRAMAREN BIDEZ

651 eredua osatzeko laguntza programa eskuragarri dago Arabako Foru Aldundiaren webgunean:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/oinordetzen-eta-dohaintzen-laguntza-programa>

Egin beharreko autolikidazio guztiak bete ostean, zerga ordaindu behar duzu, edozein banku erakunde laguntzailearen bitartez, eta agiri guztiak aurkeztu behar dituzu Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Atalean (Ogasunaren eraikineko 1. solairua).

AURKEZTEKO EPEA

Hogeita hamar egun baliodun, dohaintza egin eta hurrengo egunetik aurrera.

ARAUDIA

11/2005 Foru Araua, maiatzaren 16koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa.

Diputatuen Kontseiluaren 74/2006 Foru Dekretua, azaroaren 29koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Arautegia onesten duena.

JARRAITU BEHARREKO PAUSOEN LABURPENA

1. Bete **aurkezlearen** datuak.
2. Bete **aurkezpen** datuak.
3. Bete aurkezpenaren **ereduak** (autolikidazioak).
4. **Inprimatu** laguntza programak sortutako PDF dokumentua, zeinetan honako hauek agertuko baitira:
 - Aurkezpen orria
 - Ondasun higigarrien edo/eta higiezinen zerrendak
 - Autolikidazioak
 - Eranskinak (hala badagokio)
 - QR kodeak

Inprimatu behar beste kopia.

Sortzen den PDF dokumentua gordetzea komeni da.

5. **Ordaindu** autolikidazioen emaitzaren araberako zerga zorra banku erakunde laguntzaileetako batean.


6. **Aurkeztu autolikidazioak** gainerako agiriekin batera Foru Ogasunaren bulegoetan: Félix M Samaniego kalea 14, 1. solairua, 01008 Gasteiz.

AURKEZLEAREN DATUAK

Autolikidazioak osatzen hasi baino lehen, ezinbestekoa da aurkezpen guztietan bera izango den **aurkezlearen datuak** betetzea.


Aurkezlea zergaduna bera izan daiteke edo eragiketa haren izenean egiten duen ordezkari edo profesional bat.

Aurkezpena / Aurkezlearen datuak:



Aurkezlearen datuak

IFZ	1. deitura edo sozietat. izena	2. deitura	Izena						
00001234S	PRESENTADOR	PRESENTADOR	PRESENTADOR						
Helbidea		Zk.	Letra	Esk.	Exeb.	Atea			
SAMANIEGO		14							
Erakundea edo herria	Udalerria	Probintzia				Posta kodea			
VITORIA	VITORIA	Araba				01008			

 **Itxi** [Lege Oharra](#)

Datuak gordetzeko, botoi hau klikatu behar duzu:



Aurkezlearen datuak gordeta, hurrengo aurkezpenetan datu horiek beraiek agertuko dira. Aldatu beharra baduzu, pantaila horretan sartu behar duzu, botoi hau sakatu, eta datuak idatzi:



AURKEZPEN DATUAK

Aurkezpen Datuak

Aurkezlea

IFZ 72733803Y 1. deitura edo sozietatearen izena IBAÑEZ 2. deitura BASAGUREN Izena GARAZI

Helbidea URBINA Zk. 13 Letra 3 Esk. Etxeb. Atea IZ

Erakundea edo herria VITORIA Udalemia VITORIA Probintzia Araba Posta kodea 01002

Agiri publikoa Agiri pribatua Agiri judiziala

Oinordetza (650 eredua) Dohaintza (651 Eredua) Bizi aseguruaren poliza (652 Eredua) Nitxoak / Panteoiak (653 Eredua) Ibilgailuak (654 eredua) Gozamena iraugitzea (655 eredua) Zuzenketa

Aginian/protokoloan jasotzen diren heriotzen kp. Dohaintza kp. 1

Protokolo zk. Bis

Notarioaren IFZ

Agiriaren data 2020/04/30

Egilespen tokia mm Probintzia Araba

Honen zergapekoak diren beste eragiketa batzuk:
Egintza Juridiko Dokumentuak
Ondare Eskualdaketak

Lege Oharra

Itxi

OHARRA: Aurkezpen bakarra egin daiteke agiriko (eskritura edo pribatua), agirian dagoen eragiketa kopurua gorabehera.

Markatu "Dohaintza" laukia (651 eredua)

Agiri mota

Dagokion laukia markatu behar duzu: "Agiri publikoa" edo "Agiri pribatua".

Ondasun higiezinaren edo haien gaineko eskubideen dohaintzak (esaterako, higiezin baten gaineko gozamenaren dohaintza) agiri publiko bidez formalizatu behar dira beti (notario eskritura).

Agiriaren datuak

- Protokolo zk. / Notarioaren IFZ: soilik dohaintza eskritura publikoaren bidez egin bada.
- Agiriaren data: dohaintza jasotzen duen agiriarena idatzi behar da.
- Egilespen tokia: agiria zein herritan formalizatu zen idatzi behar da.

Dohaintza kopurua

Lauki honetan aurkezpenak duen autolikidazio kopurua idatzi behar duzu.

Adibidea:


Eskritura publikoa, zeinaren bitartez Arantza andreak eta Jaime jaunak beren seme Aitorri eta alaba Luisari dohaintzan ematen baitiete etxebizitza bat erdibana.

Lau autolikidazio aurkeztu behar dira eta bakoitzari dagokion ondasun higigarrien (dirua) eta higiezin zerrenda:

- Aitor hartzailea / Arantza emailea
- Aitor hartzailea / Jaime emailea
- Luisa hartzailea / Arantza emailea
- Luisa hartzailea / Jaime emailea

NOLA BETE EREDUA

Behin aurkezpenaren datuak gordeta, pantaila honetara iritsiko zara:



Aurkezpenean dohaintza bat baino gehiago badago, dohaintza beste eredu gehitu beharko dira "Gehitu 651 Dohaintzak" botoiaren bidez. Eskuineko botoien bidez, ereduak ezabatu ditzakezu.

Ereduak betetzeko bi aldiz klikatu behar duzu eredu bakoitzaren lerroan edo eskuinean dagoen "Ireki" botoian, eta horrela, pantaila honetara iritsiko zara: "Dohaintza emailearen datuak".

DOHAINZA EMAILEAREN DATUAK

Dohaintza emailearen datuak | Dohaintza hartzailea | Ondasun higiezinak | Ondasun higigarriak eta eskubideak | Autolikidazioa

Erantsitako dokumentazioa

IFZ: 1. deitura edo sozietatearen izena: 2. deitura: Izena:

Helbidea: Zk.: Letra: Esk.: Etxeb. Atea: Telefonoa:

Erakundea edo herria: Udaleria: Probintzia: Posta kodea: Jaioteguna:

Aldatu | Onartu | Utzi | Kopiatu

Pantaila honetan emailearen datuak bete behar dira; behin beteta, "Onartu" botoia sakatuta gordetzen dira.

HARTZAILEAREN DATUAK

Dohaintza emailearen datuak | Dohaintza hartzailea | Ondasun higiezinak | Ondasun higigarriak eta eskubideak | Autolikidazioa

IFZ: 1. deitura edo sozietatearen izena: 2. deitura: Izena: Ezintasun maila:

Helbidea: Zk.: Letra: Esk.: Etxeb. Atea: Telefonoa: Ahaidetasuna: Taldea:

Erakundea edo herria: Udaleria: Probintzia: Posta kodea: Jaioteguna: Aurretik zegoen ondarea:


Aldatu | Onartu | Utzi | Kopiatu

Arabako egoliarra
Bai Ez

5 urte edo gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan
Bai Jatuzko autonomia erkidegoa
Ez

Ezintasun maila

Hartzailea legez desgaitua bada eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa badu, aitortutako desgaitasun portzentajea adierazi behar da. Edozein mailatako mendekotasun egoera aitortuta badu, baina ez badu desgaitasun portzentajerik egiaztatuta, % 65 idatzi behar da. Ahaidetasuna



Zabalgarrin aukeratu zein ahaidetasun duen hartzaileak emailearekin.

Arabako egoiliarra Arabako egoiliartzat jotzen da sortzapenaren egunaren aurreko urtean hartzailea bizi izan bada: urte $\frac{1}{2}$ baino gehiago EA egun gehiago Araban Bizkaian baino egun gehiago Araban Gipuzkoan baino

(Hiru baldintzak bete behar dira) 5 urte edo gehiago EA En

Markatu BAI laukia sortzapenaren aurreko bost urteetan hartzailea egun kopuru handiagoa bizi izan bada Euskal Autonomia Erkidegoan (laukia markaturik agertzen da; beraz, baldintza hau betetzen ez bada, EZ laukia markatu behar da).

EZ laukia markatuz gero, jatorrizko autonomia erkidegoari buruzko datuak idatzi behar dira, bai eta aurreko ondarearenak ere.

EZ laukia markatuz gero, jatorrizko autonomia erkidegoaren araudia aplikatuko da autolikidazioa kalkulatzeko.

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN KOKATUTAKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA

Dohaintzaren xedea Arabako Lurralde Historikoan kokatutako higiezinak edo haien gaineko eskubideak direnean bete behar da zerrenda hau; bestela, zuzenean pasa zaitezke hurrengo erlaitzera.

Lurralde honetatik kanpo kokatuta dauden higiezinaren kasuan, ondasun higigarrien eta eskubideen zerrendan sartu behar dira, "Beste ondasun eta eskubide batzuk" atalean.

Ondasunaren deskripzioa

Dohaintzan emandako ondasun higiezinaren helbidea edo identifikazioa idatzi behar da.

Mota

Aukeratu higiezin mota zabalgarrian (landakoa, lokala, etxebizitzak eta beste)

Katastro erreferentzia

Higiezinaren katastro erreferentzia idatzi behar da.

Katastro erreferentzien ziurtagiria aurkeztu behar da, Arabako Foru Aldundiko Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak emandakoa. Katastro erreferentziak 20 digitu ditu.

Hiriko katastro erreferentziaren adibidea: 010112620000010001JS

Datuak honela bete behar dira:

Udalerrria: 01 / Poligonoa: 01/ Lurzatia: 1262 /Azpilurzatia: hutsik / Eraikina: 0001 / Z.U.: 0001 / DC: JS

Udalerria	Poligonoa	Lurzatia	Azpilurzatia	Eraikina	Z.U.	D.C.
01	01	1262		0001	0001	JS

Landako katastro erreferentziaren adibidea: 010101510A00000000DN

Datuak honela bete behar dira:

Udalerrria: 01 / Poligonoa 01 / Lurzatia 0151 /Azpilurzatia: 0A / DC: DN

Udalerria	Poligonoa	Lurzatia	Azpilurzatia	Eraikina	Z.U.	D.C.
01	01	1262		0001	0001	JS

OHARRA: "Azpilurzatia" eremua eremu alfabetikoa da eta hizkiak besterik ezin dira idatzi. Azpilurzatia 00 bada (zero, zero), utzi hutsik. Azpilurzatia 0A bada (zero, A), idatzi soilik A.

Partaidetzaren %

Emailak hartzaileari dohaintzan ematen dion higiezinaren portzentajea idatzi behar da.

Aitortutako irabazpidezko balioa

Emailak hartzaileari dohaintzan ematen dion higiezinaren portzentajea higiezinaren guztizko balioari aplikatzearen emaitza idatzi behar da. Ondasuna irabazpidezkoa denean erabili behar da lauki hau.

Aitortutako balio pribatiboa

Emailleak hartzaileari dohaintzan ematen dion higiezinaren portzentajea higiezinaren guztizko balioari aplikatzearen emaitza idatzi behar da. Ondasuna pribatiboa denean erabili behar da lauki hau.

Adibidea:

Eskritura publikoa, zeinaren bitartez Arantza X andreak eta Jaime Y jaunak beren seme Aitorri eta alaba Luisari dohaintzan ematen baitiete, erdibana, 200.000 eurotan balioetsitako irabazpidezko etxebizitza bat.

Lau autolikidazio aurkeztu behar dira eta bakoitzari dagokion ondasun edo higiezinaren zerrenda:

- Aitor hartzailea / Arantza emailea
- Aitor hartzailea / Jaime emailea
- Luisa hartzailea / Arantza emailea
- Luisa hartzailea / Jaime emailea

Horietako bakoitzean ondasun higiezinaren zerrenda erantsi behar da, zeinetan etxebizitza eta haren katastro erreferentzia idatzi behar baitira, bai eta honako hauek ere:

- partaidetzaren % = 25 % (Jaimek etxebizitzaren bere zatia, % 50, ematen die dohaintzan bere seme-alabei erdibana, alegia, % 25 bakoitzari, eta Arantzak berdin)
- Aitortutako irabazpidezko balioa = 50.000 (etxebizitzaren balioespenaren % 25)

Dohaintzan emandako higiezinaren balio erreala idatzi behar da aitortutako balioan. Arabako Lurralde Historikoan dauden ondasun higiezinaren katastro balioa da gutxieneko balio konputagarria.

Eskualdatutako balioen eta eskubideen balio erreala egiaztatu ahal izango du Administrazioak, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 56. artikuluan jasotzen diren bitartekoen bidez eta zergari buruzko foru arauaren 21. artikuluan jasotzen direnen bidez.

Aitortutako balioa hartuko da aintzat, baldin eta egiaztatutakoa baino handiagoa bada, eta salbu eta 0 ahaidetasun taldearen barruan egindako dohaintzen kasuan (arbasoen eta ondorengoen artekoak edo bikotekideen artekoak).

Jabetza osoa

Markatu lauki hau higiezinaren jabetza osoa ematen bada dohaintzan.

Aldi baterako gozamina / Urte kopurua

Markatu lauki hau higiezinaren aldi baterako gozamina ematen bada dohaintzan eta adierazi zenbat urtetarakoa den.

Biziarzteko gozamina / Eraketa

Markatu lauki hauek higiezinaren gaineko biziarzteko gozamina ematen bada dohaintzan.

Biziarzteko gozamina / Eskualdatzea

Markatu lauki hau aurrez emailearen alde eratutako higiezin baten biziarzteko gozamina ematen bada dohaintzan.

ONDASUN HIGIGARRIEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

Dohaintzaren xedea ondasun higigarriak edo haien gaineko eskubideak direnean bete behar da zerrenda hau.

Aitortutako irabazpidezko balioa

Emaleak hartzaileari dohaintzan ematen dion guztizko balioa idatzi behar da. Ondasuna irabazpidezkoa denean erabili behar da lauki hau. Aitortutako balio pribatiboa

Emaleak hartzaileari dohaintzan ematen dion guztizko balioa idatzi behar da. Ondasuna pribatiboa denean erabili behar da lauki hau.

Dohaintzan emandako ondasunen **balio erreala** idatzi behar da aitortutako balioan.

Balioesteko arau zehatzak existitzen dira, besteak beste, honako hauek:

- Banku gordailuak, eskudirua: dohaintzan emandako zenbatekoa.
- Akzioak eta burtsan negoziatutako beste balio batzuk: dohaintza egiten den eguneko kotizazio balioa.
- Burtsan kotizatzen ez duten sozietate partaidetzak: onartutako azken balantzearen emaitzako balio teorikoa.
- Ibilgailu automobilak, ontziak eta aireontziak Arabako Foru Aldundiak horretarako urtero ezartzen dituen arauei jarraituz balioetsiko dira. (http://www.araba.eus/vehiculos/vmt50000_panini.aspx)

Eskualdatutako balioen eta eskubideen balio erreala egiaztatu ahal izango du Administrazioak, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 56. artikuluan jasotzen diren bitartekoen bidez eta zergari buruzko foru arauaren 21. artikuluan jasotzen direnen bidez.

Aitortutako balioa hartuko da aintzat, baldin eta egiaztatutakoa baino handiagoa bada, eta salbu eta 0 ahaidetasun taldearen barruan egindako dohaintzen kasuan (arbasoen eta ondorengoen artekoak edo bikotekideen artekoak)

Jabetza osoa

Markatu lauki hau ondasunaren edo eskubidearen jabetza osoa ematen bada dohaintzan.

Aldi baterako gozama / Urte kopurua

Markatu lauki hau ondasunaren edo eskubidearen aldi baterako gozamina ematen bada dohaintzan eta adierazi zenbat urtetarakoa den.

Biziarteko gozamina / Eraketa

Markatu lauki hauek ondasun edo eskubide baten gaineko biziarteko gozamina ematen bada dohaintzan.

Biziarteko gozamina / Eskualdatzea

Markatu lauki hau aurrez emailearen alde eraturako ondasun edo eskubide baten biziarteko gozamina ematen bada dohaintzan. Jabetza soila

Markatu lauki hau ondasunaren edo eskubidearen jabetza soila ematen bada dohaintzan.

AUTOLIKIDAZIOA

Dohaintza emailearen datuak		Dohaintza hartzailea		Ondasun higiezinak		Ondasun higigarriak eta eskubideak		Autolikidazioa	
26262626F DOHAINTZE HARTZAILEA									
Aitortutako irabazpidezko balioaren batura..	0,00								
Aitortutako balio pribatiboaren batura.....	150.000,00								
Ondasunen eta eskubideen balio erreal.....	150.000,00								
Karga kengarriak.....	0,00								
Zor kengarriak.....	0,00								
Zerga oinarria.....	150.000,00								
Aurreko dohaintzen metaketa.....	0,00								
Zerga oinarri metatua.....	150.000,00								
Txikipenak/Salbuespenak:									
Ebebizitzaren erosketa/Banako enpresa/Bestelakoak	0,00								
Nekazaritzako mozkinak.....	0,00								
Txikipenak/Salbuespenak, guztira...	0,00								
Likidazio oinarria.....	150.000,00								
<input type="checkbox"/> Preskribatua <input type="checkbox"/> Ez zergapekoa									

Tarifa zc // Tasa finkoa: 2			
Honetz:	90.850,01	9.528,05	
Gainet:	59.149,99	al 15,58 %	9.215,57
Kuota osoa.....		18.743,62	
Biderkatze koefizientea.....		0	
(Jatorrizko autonomia erkidegoko araudia bakarrik)			
Zerga kuota: Tarifa//Tasa finkoa...		18.743,62	
Kentzekoa:			
Nazioarteko zergap. bikoit. kenkaria.....		0,00	
Aurreko kuoten kenkaria.....		0,00	
Ordaintzekoa, guztira.....		18.743,62	
Epez kanpoko emekargua.....		0,00	
Berandutze interesa.....		0,00	
Zerga zorra, guztira.....		18.743,62	

Karga kengarriak

Karga kengarriak idatzi behar dira (horien frogagiriak aurkeztu behar dira).

Zergaren arauaren 19. artikulua

Agertzen diren kargak kengarriak dira zuzenean ezartzen bazaizkie dohaintzan emandako ondasunei eta haien balioa murrizten badute, esaterako, zentsuak edota pentsioak Ez dira kengarriak bahiak eta hipotekak.

Zor kengarriak

Zor kengarriak idatzi behar dira (horien frogagiriak aurkeztu behar dira).

Zergaren arauaren 20. artikulua

Eskubide errealen bidez bermatuta dauden eta dohaintzan emandako ondasunen gainekoak diren zorrak (hipoteka, bahia...) dira kengarriak, baldin eta hartzaileak bere gain hartzen badu aurreko zorduna libre uzteko betebeharra; osterantzean, ez dira kengarriak izango.

Aurreko dohaintzen metaketa

Emailerak hartzaile berari dohaintzaren egunaren aurreko hiru urteetan emandako dohaintzen zenbatekoa idatzi behar da.

Etxebizitza erosteagatiko / banako enpresagatiko / bestelakoengatiko murrizketak

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 22. artikulua arabera aplikatu beharreko kenkariak idatzi behar dira. Horiek aplikatu beharra dagoela egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dira.

Nekazaritzako irabaziak

Nekazaritzarekin Lotutako Zerga Neurriei buruzko Arabako Batzar Nagusien ekainaren 9ko 17/1997 Foru Arauan jasotako neurrietakoren bat aplikagarria bada, dagokion murrizketa idatzi behar da.

Kenkaria nazioarteko zergapetze bikoitzagatik

Zergaren arauaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion kenkaria idatzi behar da.

Epez kanpo aurkezteagatiko errenergua

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 27 artikulua honako errenergua hauek ezartzen ditu:

- % 5koa, baldin eta autolikidazioa epez kanpo aurkezten bada (sortzapenetik 30 egun baliodunetan) errekerimendurik egin gabe.
- % 10koa, baldin eta autolikidazioa borondatez aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hamabi hilabeteak igarota aurkezten bada.

Berandutze interesak


Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren 38. artikuluan ezarritakoak.

Preskribatua / Ez zergapekoa

Autolikidazioa preskribatu egin bada edo ez bada zergapekoa, dagokion laukia markatu behar da.

Behin ereduak beteta, "Itzuli aurkezpena" botoiaren bidez, lehenengo pantailara itzultzen da eta aurkezpenak dituen gainerako ereduak bete daitezke edo aurkezpena itxi eta inprimatu.

NOLA ITXI AURKEZPENA ETA INPRIMATU EREDUAK



Behin aurkezpenak izan beharreko eredu guztiak beteta (bat agirian agertzen den dohaintza bakoitzeko), "Itxi aurkezpena" botoia sakatuta ixten da.

Arabako Lurralde Historikoan kokatutako ondasun higiezinaren dohaintzen kasuan, aurretik **katastrorako zerrenda** bete behar da.

Behin aurkezpena itxita, "Inprimatu behin betikoa" botoia aktibatzen da eta, haren bidez, PDF dokumentu bat sortzen da, zeinaren hiru kopia inprimatu behar baitira (Administrazioarentzat, zergadunarentzat eta banku erakundearentzat).



KATASTRORAKO ZERRENDA

Arabako Lurralde Historikoan kokatutako ondasun higiezinaren dohaintzen kasuan bete behar da eranskin hau.

Higiezinaren identifikazioa

Ondasun higiezinak

Hinkoa / Landakoa	Udalerria	Poligonoa	Ebe saila	Lurzatia	Azpilurzatia	Eraikina	ZU	KD	Erabilera
-------------------	-----------	-----------	-----------	----------	--------------	----------	----	----	-----------

Mota: Landakoak Udalerria: 1 Poligonoa: 01 Ebe saila: Lurzatia: 151 Azpilurzatia: A Eraikina: Z.U.: D.C.: DN

Eskualdatzaileak/Eskuratzzaileak



"Kopiatu" botoian klikatuta, aurrez 651 ereduan sartu diren higiezinak agertzen dira.

Behin higiezina hautatuta, haren datuak dagozkien laukietan kargatuko dira eta "Onartu" botoiaren bidez baliozkotu behar dira.




Ondoren, eskuratzzaileen eta eskualdatzaileen datuak bete behar dira, " Eskualdatzaileak/Eskuratzzaileak" botoiaren bidez.

Mota: Landakoak Udalerria: 1 Poligonoa: 01 Ebe saila: Lurzatia: 151 Azpilurzatia: A Eraikina: Z.U.: D.C.: DN

Eskualdatzaileak/Eskuratzzaileak

Eskuratzailerak




IFZ	Partaidetza koefiz.	1. Deitura	2. Deitura	Izena	Helbidea	Zk.	Letra	Eskailera	Etxeb.	Atea	Erakundea
-----	---------------------	------------	------------	-------	----------	-----	-------	-----------	--------	------	-----------



"Kopiatu" botoian klikatuta, aurrez aurkezpenean sartu diren emaileen eta hartzaileen identifikazio datuak agertuko dira.

Eskuratzailerak gisa hautatu behar da higiezin jasoko duen pertsona (hartzailea).



Behin eskuratzailerak aukeratuta, hau egin behar da:


- Markatu dagokion laukia: Jabetza osoa / Biziarteko gozamina / Aldi baterako gozamina / Jabetza soila.
- Partaidetza koefizientea: jabetza osoa edo jabetza soila bada, dohaintzan jasotako higiezinaren ehunekoak idatzi behar da.
- Adina / Urte kopurua:

Eskualdatzailerak



"Kopiatu" botoian klikatuta, aurrez aurkezpenean sartu diren emaileen eta hartzaileen identifikazio datuak agertuko dira.


Eskualdatzailerak gisa hautatu behar da higiezin dohaintzan emango duen pertsona (emailea).



Behin eskualdatzailerak aukeratuta, partaidetza koefizientea idatzi behar da, hau da, dohaintzan eman duen higiezinaren ehunekoak.

Katastrorako zerrendan agiri publiko edo pribatuaren bidez eskualdatutako eta Araban kokatutako higiezin guztiak agertu behar dira. Lerro bat dago higiezin bakoitzerako, zeinetan higiezin horren eskuratzailerak eta eskualdatzailerak guztiak agertzen baitira.

Adibide honetako agirian bi pertsonak (1 EMAILEA eta 2 EMAILEA) higiezin bat ematen diete dohaintzan beren bi seme-alabei (1 HARTZAILEA eta 2 HARTZAILEA):

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net</p>		<h3>Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga Katastrorako</h3> <h4>Arabako Lurralde Historikoko ondasun higiezinak</h4>																									
<p>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila</p>		<p>Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</p>																									
<p>Protokolo zkl. <input type="text" value="00000"/> NOTARIA <input type="text"/></p>		<p>Landa ondasunak</p>																									
<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="4">Katastrorako erreferentzia</th> <th colspan="4">Katastrorako erreferentzia</th> </tr> <tr> <th>Udalerrria</th> <th>Poligonoa</th> <th>Lurzatia</th> <th>Azpiluztatia</th> <th>Udalerrria</th> <th>Poligonoa</th> <th>Lurzatia</th> <th>Azpiluztatia</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1</td> <td>01</td> <td>151</td> <td>A</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table>		Katastrorako erreferentzia				Katastrorako erreferentzia				Udalerrria	Poligonoa	Lurzatia	Azpiluztatia	Udalerrria	Poligonoa	Lurzatia	Azpiluztatia	1	01	151	A						
Katastrorako erreferentzia				Katastrorako erreferentzia																							
Udalerrria	Poligonoa	Lurzatia	Azpiluztatia	Udalerrria	Poligonoa	Lurzatia	Azpiluztatia																				
1	01	151	A																								
Subjektu pasibak - eskuratzailak	<p>1) IFZ <input type="text" value="26262626F"/> Deliturak eta izena edo societate izena <input type="text" value="DOHAINTEZ HARTZAILEA"/> <input type="checkbox"/> X</p> <p>Hobidea, kalea edo plaza <input type="text" value="SAMANIEGO"/></p> <p>Zk. <input type="text" value="14"/> Letra <input type="text"/> Esk. <input type="text"/> Sol. <input type="text"/> Aldoa <input type="text"/> Errotorea edo herria <input type="text" value="VITORIA-GASTEIZ"/></p> <p>Udalerrria <input type="text" value="VITORIA-GASTEIZ"/> Probintzia <input type="text" value="Araba"/></p>	<p>Gozamenak, Jabetza soilak</p> <p>Jabetza Osoa <input type="text" value="100"/> Koeffizientea <input type="text" value="100"/></p> <p>Bizi artekoa</p> <p>AMi baterakoa</p> <p>Jabetza soilak: 100% - % Gozamena = <input type="text" value="0"/> %</p> <p>Gozamendusak eratzte detan zuten edina</p> <p>Urte kopurua <input type="text"/></p>																									
	<p>2) IFZ <input type="text"/> Deliturak eta izena edo societate izena <input type="text"/></p> <p>Hobidea, kalea edo plaza <input type="text"/></p> <p>Zk. <input type="text"/> Letra <input type="text"/> Esk. <input type="text"/> Sol. <input type="text"/> Aldoa <input type="text"/> Errotorea edo herria <input type="text"/></p> <p>Udalerrria <input type="text"/> Probintzia <input type="text"/></p>	<p>Gozamenak, Jabetza soilak</p> <p>Jabetza Osoa <input type="text"/> Koeffizientea <input type="text"/></p> <p>Bizi artekoa</p> <p>AMi baterakoa</p> <p>Jabetza soilak: 100% - % Gozamena = <input type="text"/> %</p> <p>Gozamendusak eratzte detan zuten edina</p> <p>Urte kopurua <input type="text"/></p>																									
	<p>3) IFZ <input type="text"/> Deliturak eta izena edo societate izena <input type="text"/></p> <p>Hobidea, kalea edo plaza <input type="text"/></p> <p>Zk. <input type="text"/> Letra <input type="text"/> Esk. <input type="text"/> Sol. <input type="text"/> Aldoa <input type="text"/> Errotorea edo herria <input type="text"/></p> <p>Udalerrria <input type="text"/> Probintzia <input type="text"/></p>	<p>Gozamenak, Jabetza soilak</p> <p>Jabetza Osoa <input type="text"/> Koeffizientea <input type="text"/></p> <p>Bizi artekoa</p> <p>AMi baterakoa</p> <p>Jabetza soilak: 100% - % Gozamena = <input type="text"/> %</p> <p>Gozamendusak eratzte detan zuten edina</p> <p>Urte kopurua <input type="text"/></p>																									
	<p>4) IFZ <input type="text"/> Deliturak eta izena edo societate izena <input type="text"/></p> <p>Hobidea, kalea edo plaza <input type="text"/></p> <p>Zk. <input type="text"/> Letra <input type="text"/> Esk. <input type="text"/> Sol. <input type="text"/> Aldoa <input type="text"/> Errotorea edo herria <input type="text"/></p> <p>Udalerrria <input type="text"/> Probintzia <input type="text"/></p>	<p>Gozamenak, Jabetza soilak</p> <p>Jabetza Osoa <input type="text"/> Koeffizientea <input type="text"/></p> <p>Bizi artekoa</p> <p>AMi baterakoa</p> <p>Jabetza soilak: 100% - % Gozamena = <input type="text"/> %</p> <p>Gozamendusak eratzte detan zuten edina</p> <p>Urte kopurua <input type="text"/></p>																									
	<p>5) IFZ <input type="text"/> Deliturak eta izena edo societate izena <input type="text"/></p> <p>Hobidea, kalea edo plaza <input type="text"/></p> <p>Zk. <input type="text"/> Letra <input type="text"/> Esk. <input type="text"/> Sol. <input type="text"/> Aldoa <input type="text"/> Errotorea edo herria <input type="text"/></p> <p>Udalerrria <input type="text"/> Probintzia <input type="text"/></p>	<p>Gozamenak, Jabetza soilak</p> <p>Jabetza Osoa <input type="text"/> Koeffizientea <input type="text"/></p> <p>Bizi artekoa</p> <p>AMi baterakoa</p> <p>Jabetza soilak: 100% - % Gozamena = <input type="text"/> %</p> <p>Gozamendusak eratzte detan zuten edina</p> <p>Urte kopurua <input type="text"/></p>																									
	<p>IFZ <input type="text" value="25252525C"/> Deliturak eta izena edo societate izena <input type="text" value="DOHAINTEZ EMAILEA"/> <input type="text"/></p> <p>Hobidea, kalea edo plaza <input type="text" value="SAMANIEGO"/></p> <p>Errotorea edo herria <input type="text" value="VITORIA-GASTEIZ"/> Udalerrria <input type="text" value="VITORIA-GASTEIZ"/> Probintzia <input type="text" value="Araba"/></p> <p>Zk. <input type="text" value="14"/> Letra <input type="text"/> Esk. <input type="text"/> Sol. <input type="text"/> Aldoa <input type="text"/></p>	<p>Partaidetza kasul. <input type="text" value="100"/></p>																									
<p>IFZ <input type="text"/> Deliturak eta izena edo societate izena <input type="text"/></p> <p>Hobidea, kalea edo plaza <input type="text"/></p> <p>Errotorea edo herria <input type="text"/> Udalerrria <input type="text"/> Probintzia <input type="text"/></p>	<p>Partaidetza kasul. <input type="text"/></p>																										